



KONTADORES GAZTE ZENTRORAKO KULTUR PROPOSAMENAK EGITEKO DEIALDIA - PARTE HARTZEKO OINARRIAK-

1.- HELBURUA

Udaleko Donostia Gazteriak, Kontadores Gazte Zentroaren bitartez, kultur proposamenak jasotzeko zortzigarren deialdia abian jarri du. Deialdi honek tokiko sormen-prozesu gazteak bultzatzea du helburu, baita proposamen berriak Kontadoreseko eremuan integratzea ere.

2.- PARTE HARTZAILEAK

Deialdian honakoek hartu dezakete parte: artistak, eragileak, kolektiboak zein pertsona fisikoak. Interesa duen edonori irekia dago deialdia. Nolanahi ere, lehentasuna izango dute Donostian bizi diren 18 eta 30 urte bitarteko gazteek.

3.-JARDUERA-EREMUAK ETA PROIEKTU MOTAK

Proposamen mota hauek onartuko dira: Kontadoresen emateko laborategi edo lantegi trinkoak (LABORATEGIAK) edo/eta arte biziekin erlazionaturiko pieza eszenikoak (ESZENA).

3.1.- LABORATEGIEN EZAUGARRIAK

Laborategien helburua da diziplina artistiko eta kulturalak bultzatzea, gazteen interes eta gustuak kontuan hartuta. Era berean, gazteek edozein diziplina artistiko eta kulturalen inguruan duten ezagutza partekatzeko aukera eskaintzeko asmoa ere badute laborategiek. Horietan, gai zehatz bati buruzko formazioa eskaintzeaz gain, partaideen arteko harremanak sortzen dira eta saioetan dinamika bereziak sustatzen dira. Hala, gazte-talde mugatuei zuzenduriko laborategiak gauzatzen dira (6 eta 15 pertsona bitarteko taldeak).

CONVOCATORIA ABIERTA PARA RECIBIR PROPUESTAS CULTURALES PARA EL CENTRO JOVEN KONTADORES - BASES DE PARTICIPACIÓN-

1.- FINALIDAD

Donostia Gazteria del Ayuntamiento de San Sebastián a través de su centro joven Kontadores, lanza la octava convocatoria para presentar propuestas culturales, con la finalidad de impulsar procesos de creación de carácter joven y local, e integrar nuevas propuestas en el espacio Kontadores.

2.- PERSONAS DESTINATARIAS

Podrán presentar sus propuestas artistas, agentes, colectivos o personas físicas. Es una convocatoria abierta a todas las personas interesadas. Si bien tendrán prioridad personas jóvenes de entre 18 y 30 años residentes en Donostia-San Sebastián.

3.-ÁMBITOS DE ACTIVIDAD Y TIPOS DE PROYECTOS

Se aceptarán propuestas para impartir laboratorios o talleres intensivos en Kontadores (LABORATEGIAK) y/o para proponer piezas escénicas relacionadas con las artes vivas (ESZENA).

3.1.- CARACTERÍSTICAS DE LABORATEGIAK

La función de los laboratorios es promover disciplinas artísticas y culturales, tomando en cuenta los intereses y gustos de personas jóvenes. Asimismo, los laboratorios pretenden ser una oportunidad para jóvenes que quieran compartir sus conocimientos en cualquier disciplina artística y cultural. En estos laboratorios además de proporcionar formación sobre un tema en concreto, se crean relaciones entre los/las participantes y se fomentan dinámicas especiales durante las sesiones. Los laboratorios se desarrollan para un grupo reducido de jóvenes (entre 6 y 15 personas).



3.2- ESZENAREN EZAUGARRIAK

Arte biziekin erlazionaturiko proposamenak erakusteko eremua da (musika, antzerkia, spoken word, poesia, ikus-entzunezko saioak, performanceak, dantza edo antzeko ekimenak). Edozein proposamen amateur eta erdi-profesional onartuko da: pieza luzeak, motzak, inprobisazioak, entsegu orokorrak, nahiz sormen-prozesuan dauden piezak.

4.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Parte hartzeko Kontadoreseko webguneko (www.kontadores.eus) [eskaera-inprimakia](#) bete behar da.

Beharrezkoa da nahitaezkoak diren eremu guztiak betetzea parte hartzeko.

Proposamen bakoitzeko inprimaki bat bete behar da. Ez dira onartuko proposamen bat baino gehiago inprimaki bakarrean.

5.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

Proposamenak aurkezteko epea 2026ko martxoaren 23tik apirilaren 30era arte egongo da zabalik, bi egun horiek barne.

Dokumentazioa online aurkeztu behar da, gorago aipatutako eskaera-inprimakia beteta.

6.- PROPOSAMENEN AUKERAKETA ETA HORIEK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Aurkeztutako proposamenak kultura/sorkuntza gaztea ordezkatzeko eta gazteriarekin konektatzeko duten gaitasunaren arabera balioetsiko dira.

Lehentasuna izango dute Donostian bizi diren 18 eta 30 urte bitarteko gazteek bidalitako proposamenek. ESZENArako diren proposamenen balorazioan, lehentasuna izango dute euskaraz diren pieza amateur eta erdi-profesionalek.

3.2.- CARACTERÍSTICAS DE ESZENA

Se trata de un espacio donde poder mostrar trabajos relacionados con las artes vivas (música, teatro, spoken word, poesía, sesiones audiovisuales, performance, danza o actividades de similar carácter). Todo tipo de propuestas amateurs y semi-profesionales pueden tener cabida: piezas largas, cortas, sesiones de improvisación, ensayos generales, piezas en proceso de creación.

4.- DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR / CONTENIDO DE LAS PROPUESTAS

Para participar se debe cumplimentar el [formulario de inscripción](#) en la web de Kontadores (www.kontadores.eus).

Para participar es necesario completar todos los campos obligatorios.

Por cada propuesta, se tendrá que rellenar un formulario. No se aceptarán varias propuestas en un solo formulario.

5.- LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE LAS PROPUESTAS

El plazo para presentar las propuestas estará abierto del 23 de marzo al 30 de abril de 2026, ambos incluidos.

La documentación requerida se presentará, vía online, a través del formulario anteriormente mencionado.

6.- SELECCIÓN Y CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LAS PROPUESTAS

Las propuestas presentadas se valorarán en función de su capacidad para representar y conectar con la cultura/creación juvenil actual.

Se priorizarán propuestas realizadas por personas jóvenes de entre 18 y 30 años residentes en San Sebastián. En la valoración de propuestas para ESZENA, se priorizarán piezas amateurs y semi-profesionales que se desarrollen en euskera.



Hautaturiko proposamenek ekimena garatzeko eta produzitzeko aurrekontu bat izango dute. Era berean, Kontadoresek ekimenaren sustapena egingo du online eta offline kanalen bidez.

Ez da onartuko sexu, arraza edo beste edozein arrazoiengatik inor baztertzen duen eduki edo proposamenik.

7.- BESTELAKOAK

Proposamenak aurkezteko deialdian parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar. Antolatzaileek oinarri horietako edozein puntu aldatzeko ahalmena daukate, erakundearen beharren arabera, baita deialdi honetan jasotzen ez den edozein gairi buruzko erabakiak hartzeko eskumena ere. Parte hartzaileek onartu egin beharko dituzte erabaki horiek.

Las propuestas seleccionadas contarán con un presupuesto para el desarrollo y la producción del mismo. Asimismo, Kontadores se encargará de promocionar la actividad a través de diversos canales de difusión, tanto online como offline.

No se admitirán contenidos o propuestas que discriminen a ninguna persona por razón de sexo, raza o cualquier otro motivo.

7.- VARIOS

La participación en la convocatoria para presentar propuestas supone la aceptación de estas bases. La organización se reserva el derecho de modificar cualquier punto de las presentes bases en función de las necesidades de la organización, así como a resolver cualquier aspecto no recogido en esta convocatoria, debiendo ser aceptadas sus decisiones.

Donostian, 2026ko martxoaren 14an